

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Zuzentaraua: 2009/22/EE zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko apirilaren 23koa, amaitzekintzei buruzkoa, kontsumitzaileen interesak babestearen arloan

---

Ondoko itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2009/22/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 23 de abril de 2009, relativa a las acciones de cesación en materia de protección de los intereses de los consumidores» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 110, 2009/05/01ekoa*)»

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**2009/22/EE zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena,**

**2009ko apirilaren 23koa,**

**amaitze-ekintzei buruzkoa, kontsumitzaileen interesak babestearen arloan**

**(Bertsio kodetua)**

(Texto pertinente a efectos del EEE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuak, eta, bereziki, haren 95. artikulua aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute [1],

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote [2],

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/27/EE zuzentaraua, 1998ko maiatzaren 19koa —amaitze-ekintzei buruzkoa, kontsumitzaileen interesak babestearen arloan [3]— behin baino gehiagotan aldatu izan da, eta funtsean aldatu ere [4]. Komeni da, argitasunaren eta arrazionaltasunaren mesedetan, zuzentzarau hori kodetzea.

(2) Zenbait zuzentzarauk, zuzentzarau honen I. eranskineko zerrendan jasoak, kontsumitzaileen interesak babestearen arloan arauak xedatzen dituzte.

(3) Zuzentzarau horiek beteko direla bermatzeko egun dauden mekanismoek, eremu nazionalean zein erkidegoaren eremuan, ez dute beti aukera ematen kontsumitzaileen interes kolektiboak kaltetzen dituzten arau-hausteei amaiera garaz emateko. Hona hemen zer hartzen dugun interes kolektibotzat: arau-hausteren batek kaltetu dituen partikularren interesen metaketa soila ez diren interesak. Horrek ez du esan nahi, ordea, arau-hausteei kaltetzen ez dituztenik partikularrek gauzatutako ekintza partikularrak.

(4) Zuzentzarau horien transposizioa egiteko estatuak dituzten neurrien eraginkortasun-maila —estatuan aplikagarri diren legeek ezarritakoari jarraiki legez kontrakoak diren jardueri amaiera emateko— txikiagoa izan daiteke, baldin eta jarduera horiek gauzatu ez diren beste estatu kideren batean eragiten badituzte ondorioak. Transposizioa egiteko neurri horiek, halaber, aipatutako zuzentzarauak eskatzen duten babes-maila baino babes handiagoa eragin dezakete, Tratatuekin eta zuzentzarau horiek onartzen dituzten neurriekin bateragarriak badira, betiere.

(5) Halako oztopoen merkatuaren barne-funtzionamendua kalte dezakete; izan ere, nahikoa izan daiteke legez kontrako jarduera bat beste herrialderen batean gauzatzea, edozein arauen aplikaziotik ihes egiteko. Horrek eskumena desitxuratzea eragin dezake.

(6) Oztopo horiek berek beste ondorio batzuk ere eragin ditzakete: kontsumitzaileek barne-merkatuarekiko konfiantza gutxiago izatea eta kontsumitzaileen interes kolektiboak ordezkatzen dituzten erakundeek edo Erkidegoko zuzenbidea urratzen duten jarduerak kaltetzen dituzten kontsumitzaileen interes kolektiboak babesteaz arduratzen diren erakunde publiko independenteek jarduteko aukera gutxiago izatea.

(7) Jarduera horiek askotan estatu kideen arteko mugak gainditzen dituzte. Ezinbestekoa eta presazkoa da, neurri batean, estatuak xedapenak bateratzen saiatzea, lehen adierazitako legez kontrako jarduerak egiteari utzi ahal izateko, aintzat hartu gabe legez kontrako jarduerak zein estatu kidean eragin dituen ondorioak. Jurisdikzioari erreparatuta, proposatutako ekintza horrek ez du eragozten nazioarteko zuzenbide pribatuko arauak aplikatzea, ezta estatu kideen artean indarrean dauden hitzarmenak aplikatzea ere. Horrezaz gain, Tratatuen ondorioz estatu kideek dituzten betebeharrak nagusiak errespetatzen ditu, barne-merkatuaren funtzionamendu egokiarekin zerikusia dutenak, batez ere.

2009/22/EE Zuzentzaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 110, 2009/05/01ekoa)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(8) Proposatutako ekintzaren helburuak Erkidegoak soilik lor ditzake. Horrenbestez, hari dagokio esku hartzea.

(9) Tratatuaren 5. artikulua, hirugarren lerroak, xedatutakoaren arabera, Erkidegoaren ekintza ez da Tratatuaren helburuak lortzeko beharrezkoa denetik haratago joango. Xedapen hori aplikatze aldera, kontuan hartu behar dira, ahal den neurrian, estatuen ordenamendu juridikoen berezitasunak, eta estatu kideei aukera eman behar zaie antzeko ondorioak dituzten aukeren artean hautatzeko. Zuzentarau honetan adierazitako prozeduretan parte hartzeko eskumena duten agintari judizialek edo administratiboek eskubidea izan behar dute aurretik emandako ebazpenek eragindako ondorioak aztertzeko.

(10) Aukera bat da aurreikustea erakunde publiko independente batek edo gehiagok— kontsumitzaileen interes kolektiboak babestez berariaz arduratzen direnak— zuzentarau honetan xedatutako ekintzak abian jartzeko eskubideak erabiliko dituztela. Eta beste aukera, berriz, aurreikustea kontsumitzaileen interes kolektiboak babestea helburu duten erakundeek eskubide horiek erabiliko dituztela, hain zuzen, nork bere estatuko legediari jarraiki.

(11) Estatu kideek bi aukera horien artean aukeratu ahal izango dute edo biak konbinatu, eta, zuzentarau honen baitan, baimenduko dituzten estatuko organismoak edo erakundeak izendatuko dituzte.

(12) Erkidego barruko arau-hausteei dagokienez, elkar aitortzeko printzipioa aplikatuko zaie organismo eta erakunde horiei. Estatu kideek, estatuetako entitateek hala eskatuta, Batzordeari jakinarazi beharko diote zein entitate gaitzen dituzten norberaren herrialdean ekintzak abian jartzeko zuzentarau honetan xedatutakoari jarraiki; hau da, entitate horien izenak eta horiek dituzten helburuak.

(13) Batzordeari dagokio gaitutako entitate horien zerrenda Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratuko dela ziurtatzea. Aurkakoa adierazten ez bada, eta izena zerrenda horretan adierazten bada, gaitutako entitateak gaitasun juridikoa izango du.

(14) Komeni da estatu kideek amaitze-ekintza aurkezteko asmoa duenari aurretiaz kontsulta bat egiteko betebeharra ezartzeko aukera izatea, alderdi demandatuak ustezko arau-hausteari amaiera eman ahal izan diezaion. Estatu kideek aukera izan behar dute, halaber, aurretiazko kontsulta hori estatu kideek berek hautatutako organismo publiko independente batekin batera egin dadin xedatzeko.

(15) Estatu kideek aurretiaz kontsulta bat egiteko betebeharra xedatzen badute, bi asteko epea eman behar dute, kontsulta-eskaera jasotzen den egunetik kontatzen hasita. Epe hori igaro eta arau-haustea amaitu ez bada, alderdi interesdunak ekintzaren bat gauzatu ahal izango du agintari judizial edo administratibo eskudunen aurrean, bestelako tramiterik egin behar izan gabe.

(16) Komeni da Batzordeak zuzentarau honen funtzionamenduari buruz informatzea, eta, batez ere, haren helmenari eta aurretiazko kontsultaren mekanismoaren funtzionamenduari buruz.

(17) Zuzentarau hau aplikatzeak ez du esan nahi Erkidegoan eskumen-alorrean dauden arauak aplikatu behar ez direnik.

(18) Zuzentarau honek ez die eragin behar estatu kideek zuzentaruak bere zuzenbidean txertatzeko eta zuzentaruak aplikatzeko epeei dagokienez dituzten obligazioei (II. eranskineko B zatian daude zehaztuta).

ZUZENTARAU HAU EMAN DUTE:

1. artikulua

Aplikazio-eremua

1. Zuzentarau honen xedea hau da: 2. artikuluan adierazitako amaitze-ekintzen gainean estatu kideen lege- eta erregelamendu-xedapen eta xedapen administratiboak bateratzen saiatzea; amaitze-ekintza horiek kontsumitzaileen interes kolektiboak babestekoak dira, I. eranskinean zerrendatzen diren zuzentarueta biltzen direnak, eta barne-merkatuaren funtzionamendua ona izatea ziurtatzea dute helburu.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2. Zuzentarau honen baitan, arau-haustetzat hartuko da I. eranskinean zerrendatutako edozein ekintza egitea, 1. paragrafoan adierazitako interes kolektiboen aurka egiten duena, eta estatu kideen barne ordenamendu juridikoan egindako transposizioan adierazitako moduan.

### 2. artikulua

#### Amaitze-ekintzak

1. Estatu kideek izendatuko dituzte 3. artikuluan xedatuta bezala gaitzen diren entitateek gauzatutako ekintzen gainean erabaki ahal izateko eskumena izango duten agintari judizialak edo administratiboak. Helburu hauek izango dituzte:

a) agintzea, behar adinako izapideak beteta —urgentziazko prozedura bidez dagokigun kasuan—, arau-hauste guztien amaiera edo debekua;

b) beharrezkoa izanez gero, zenbait neurri ezartzea; esate baterako, ebazpena argitaratzea, osorik zein zati bat, eta erabakitzen duten modurik egokienean; edo hutsegitea zuzentzeari buruzko deklarazioa argitaratzea, arau-haustek eragindako iraupen luzeko ondorioak murrizte aldera;

c) interesa duen estatu kidearen ordenamendu juridikoak aukera ematen badu, alderdi demandatu galtzailea zigortzea, ebazpena ez betetzeagatik agintari judizialek edo administratiboek ezarritako epean, hau ordainaraztera altxor publikoari edo estatuko legediak izendatzen edo aurreikusten duen onuradunari: diru-kopuru finko bat atzeratutako egun bakoitzeko, edo estatuko legedian xedatutako diru-kopurua. Horren helburua ebazpenak beteko direla bermatzea da.

2. Zuzentarau hau ez da traba izango aplika daitekeen legeri buruzko nazioarteko zuzenbide pribatuko arauak aplikatzeko. Hau da, oro har, arau-haustea egin den estatu kideko legea aplikatzeko, edo arau-haustek ondorioak eragin dituen estatu kideko legea aplikatzeko.

### 3. artikulua

#### Entitate gaituak ekintza bat gauzatzeko

Zuzentarau honen baitan, “entitate gaitu” izango da estatu kidearen legeri jarraiki behar bezala eratu den organismo edo erakunde oro, 1. artikuluan adierazitako xedapenak errespetatzen daitezkeen legezko interesa duena, eta, batez ere, honako hauek:

a) 1. artikuluan adierazitako interesak babestez berariaz arduratzen den organismo publiko independente bat edo gehiago —halako organismoak dauden estatu kideetan—, edo

b) nork bere estatuko legediak xedatutako irizpideei jarraiki, 1. artikuluan adierazitako interesak babestea helburu duten erakundeak.

### 4. artikulua

#### Erkidego barruko arau-haustek

1. Estatu kide guztiek behar adina neurri ezarriko dituzte, beren lurraldean arau-hauste bat egiten denean, beste estatu kideren bateko entitate gaituek —baldin eta entitate gaitu horrek babesten dituen interesei eragin badie arau-haustek— agintari judizialen aurrean demanda bat jarri ahal izan dezaten, edo 2. artikuluan adierazten diren agintari administratiboen aurrean eskaera bat egin ahal izan dezaten, artikuluan honen 3. paragrafoan adierazitako zerrenda aurkeztu ondoren. Agintari judizialek edo administratiboek zerrenda hori erabiliko dute entitate gaituak gaitasun juridikoa baduen egiaztatzeko; dena dela, horrezaz gain, eskubidea izango dute aztertzeko entitate gaitu horren xedea kontuan hartuta, gauzatutako ekintza justifikatzeko modukoa den.

2. Erkidego barruko arau-hausteei dagokienez, eta estatuko legediari jarraiki beste entitate batzuei dagozkien eskubideak aintzat hartuta, entitate gaituek hala eskatzen badute, estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote entitate

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

horiek gaituta daudela 2. artikuluan xedatutako ekintzak gauzatzeko. Estatu kideek entitate gaitu horien izena eta entitate horiek zer helburu betetzen duten jakinaraziko diote Batzordeari.

3. Batzordeak 2. paragrafoan aipatutako entitate gaituen zerrenda osatuko du, eta horien helburua zein den zehaztuko du. Zerrenda hori Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratuko da; zerrenda horretan aldatetaren bat eginez gero, lehenbailehen argitaratuko da, eta sei hilean behin zerrenda eguneratua argitaratuko da.

### 5. artikulua

#### Aurretzeko kontsulta

1. Estatu kideek xedapenak sortu edo lehendik badituzte bere horretan utzi ahali zango dituzte, horien bidez amaitze-ekintza gauzatzeko asmoa dutenek ezinbestez aurretzeko kontsulta egin dezaten, eta, hala, arau-haustearen amaiera lortzeko. Aurretzeko kontsulta amaitze-ekintza gauzatzeko den estatu kideko alderdi demandatuarekin zein entitate gaitu batekin egingo dute, 3. artikuluko a) idatz-zatian xedatutakoari jarraiki. Estatu kideak erabakiko du amaitze-ekintza abian jartzeko asmoa duenak entitate gaituari kontsulta egin behar dion edo ez. Kontsulta-eskaera jaso eta bi aste epean arau-haustea amai dadin lortu ez bada, kaltetutako alderdiak amaitze-ekintza aurkeztu ahal izango du, bestelako tramiterik egin behar izan gabe.

2. Aurretzeko kontsulta erregulatzeko arauak ezarriko dituzte estatu kideek eta horien berri emango diote Batzordeari, eta Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratuko dira.

### 6. artikulua

#### Txostenak

1. Hiru urtean behin, eta lehendabizikoz, 2003ko uztailearen 2a baino lehen, zuzentarau honen aplikazioari buruzko txosten bat aurkeztuko dio Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari.

2. Lehendabiziko txosten horretan, Batzordeak bereziki honako hauek aztertuko ditu:

a) zuzentarau honen aplikazio-eremua, hain zuzen ere, merkataritza-, industria- edo artisau-jarduera betetzen duten edo lanbide liberala duten pertsonen interes kolektiboen babesari dagokionez;

b) zuzentarau honen aplikazio-eremua, I. eranskinean zerrendatutako zuzentarauek zehazten dutenari jarraiki;

c) 5. artikuluan xedatutako aurretzeko kontsulta lagungarria izan den kontsumitzaileekiko babesa eraginkorra izan dadin.

Beharrezkoa izanez gero, txosten horrekin batera zuzentarau hau aldatzeko proposamenak ere erantsiko dira.

### 7. artikulua

#### Jarduteko ahalmen zabalagoa izateari buruzko xedapenak

Zuzentarau hau ez da traba izango, bestalde, entitate gaituek eta kaltetutako pertsona guztiek beren estatuan jarduteko ahalmen handiagoa izan dezaten ziurtatzea helburu duten xedapenak ezartzeko edo dituztenak bere horretan uzteko estatu kideek.

### 8. artikulua

#### Aplikazioa

Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote zer-nolakoa izango den barne-zuzenbidea arautzeko idatzitako testua. Xedapen horiek zuzentarau honek arautzen duen esparruan hartuko dira.

### 9. artikulua

#### Indargabetzea

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

II. eranskinaren A zatian adierazten diren zuzentarauen bidez aldatutako 98/27/EE zuzentaraua indargabetuta geratuko da. Nolanahi ere, zuzentarau honek ez du eraginik estatu kideen betebeharren gainean: ez zuzentaraua estatuko zuzenbidean sartzeko epeari dagokionez, ezta II. eranskineko B zatiko zuzentarauak aplikatzeari dagokionez ere.

Indargabetutako zuzentarauari egindako erreferentziak zuzentarau honi egindakotzat hartuko dira, eta III. eranskineko korrespondentzia-taularen arabera interpretatuko dira.

10. artikulua

Indarrean jartzea

2009ko abenduaren 29an jarriko da indarrean zuzentarau hau.

11. artikulua

Hartzaileak

Estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaileak.

Estrasburgon emana, 2009ko apirilaren 23an.

Europako Parlamentuaren izenean,

presidentea

H.-G. Pöttering

Kontseiluaren izenean,

presidentea

P. Nečas

[1] C 161 EO, 2007/07/13koa, 39. or.

[2] Europako Parlamentuaren irizpena, 2007ko ekainaren 19koa (C 146 E EO, 2008/06/12koa, 73. or.) eta Kontseiluaren Erabakia, 2009ko martxoaren 23koa.

[3] L 166 EO, 1998.06.11koa, 51. or.

[4] Ikus II. eranskineko A zatia.

## ANEXO I

LISTA DE DIRECTIVAS CONTEMPLADAS EN EL ARTÍCULO 1 <sup>(1)</sup>

1. Directiva 85/577/CEE del Consejo, de 20 de diciembre de 1985, referente a la protección de los consumidores en el caso de contratos negociados fuera de los establecimientos comerciales (DO L 372 de 31.12.1985, p. 31).
2. Directiva 87/102/CEE del Consejo, de 22 de diciembre de 1986, relativa a la aproximación de las disposiciones legales, reglamentarias y administrativas de los Estados miembros en materia de crédito al consumo (DO L 42 de 12.2.1987, p. 48) <sup>(2)</sup>.
3. Directiva 89/552/CEE del Consejo, de 3 de octubre de 1989, sobre la coordinación de determinadas disposiciones legales, reglamentarias y administrativas de los Estados miembros relativas al ejercicio de actividades de radiodifusión televisiva: artículos 10 a 21 (DO L 298 de 17.10.1989, p. 23).
4. Directiva 90/314/CEE del Consejo, de 13 de junio de 1990, relativa a los viajes combinados, las vacaciones combinadas y los circuitos combinados (DO L 158 de 23.6.1990, p. 59).
5. Directiva 93/13/CEE del Consejo, de 5 de abril de 1993, sobre las cláusulas abusivas en los contratos celebrados con consumidores (DO L 95 de 21.4.1993, p. 29).
6. Directiva 97/7/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 20 de mayo de 1997, relativa a la protección de los consumidores en materia de contratos a distancia (DO L 144 de 4.6.1997, p. 19).
7. Directiva 1999/44/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 25 de mayo de 1999, sobre determinados aspectos de la venta y las garantías de los bienes de consumo (DO L 171 de 7.7.1999, p. 12).
8. Directiva 2000/31/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 8 de junio de 2000, relativa a determinados aspectos jurídicos de los servicios de la sociedad de la información, en particular el comercio electrónico, en el mercado interior («Directiva sobre el comercio electrónico») (DO L 178 de 17.7.2000, p. 1).
9. Directiva 2001/83/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 6 de noviembre de 2001, por la que se establece un código comunitario sobre medicamentos para uso humano: artículos 86 a 100 (DO L 311 de 28.11.2001, p. 67).
10. Directiva 2002/65/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 23 de septiembre de 2002, relativa a la comercialización a distancia de servicios financieros destinados a los consumidores (DO L 271 de 9.10.2002, p. 16).
11. Directiva 2005/29/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 11 de mayo de 2005, relativa a las prácticas comerciales desleales de las empresas en sus relaciones con los consumidores en el mercado interior (DO L 149 de 11.6.2005, p. 22).
12. Directiva 2006/123/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de diciembre de 2006, relativa a los servicios en el mercado interior (DO L 376 de 27.12.2006, p. 36).
13. Directiva 2008/122/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 14 de enero de 2009, relativa a la protección de los consumidores con respecto a determinados aspectos de los contratos de aprovechamiento por turno de bienes de uso turístico, de adquisición de productos vacacionales de larga duración, de reventa y de intercambio (DO L 33 de 3.2.2009, p. 10).

---

<sup>(1)</sup> Las Directivas a que se refieren los puntos 5, 6, 9 y 11 contienen disposiciones específicas sobre las acciones de cesación.

<sup>(2)</sup> La citada Directiva se deroga y sustituye por la Directiva 2008/48/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 23 de abril de 2008, relativa a los contratos de crédito al consumo (DO L 133 de 22.5.2008, p. 66), con efectos a partir del 12 de mayo de 2010.

## ANEXO II

## PARTE A

**Directiva derogada, con sus modificaciones sucesivas**

(contempladas en el artículo 9)

Directiva 98/27/CE del Parlamento Europeo y del Consejo  
(DO L 166 de 11.6.1998, p. 51)

Directiva 1999/44/CE del Parlamento Europeo y del Consejo (DO L 171 de 7.7.1999, p. 12)	únicamente en lo que respecta a su artículo 10
Directiva 2000/31/CE del Parlamento Europeo y del Consejo (DO L 178 de 17.7.2000, p. 1)	únicamente en lo que respecta a su artículo 18, apartado 2
Directiva 2002/65/CE del Parlamento Europeo y del Consejo (DO L 271 de 9.10.2002, p. 16)	únicamente en lo que respecta a su artículo 19
Directiva 2005/29/CE del Parlamento Europeo y del Consejo (DO L 149 de 11.6.2005, p. 22)	únicamente en lo que respecta a su artículo 16, apartado 1
Directiva 2006/123/CE del Parlamento Europeo y del Consejo (DO L 376 de 27.12.2006, p. 36)	únicamente en lo que respecta a su artículo 42

## PARTE B

**Plazos de transposición en Derecho nacional y aplicación**

(contemplados en el artículo 9)

Directiva	Fecha límite de transposición	Fecha de aplicación
98/27/CE	1 de enero de 2001	-
1999/44/CE	1 de enero de 2002	-
2000/31/CE	16 de enero de 2002	-
2002/65/CE	9 de octubre de 2004	-
2005/29/CE	12 de junio de 2007	12 de diciembre de 2007
2006/123/CE	28 de diciembre de 2009	-

## ANEXO III

## TABLA DE CORRESPONDENCIAS

Directiva 98/27/CE	Presente Directiva
Artículos 1 a 5	Artículos 1 a 5
Artículo 6, apartado 1	Artículo 6, apartado 1
Artículo 6, apartado 2, párrafo primero, primer guión	Artículo 6, apartado 2, párrafo primero, letra a)
Artículo 6, apartado 2, párrafo primero, segundo guión	Artículo 6, apartado 2, párrafo primero, letra b)
Artículo 6, apartado 2, párrafo primero, tercer guión	Artículo 6, apartado 2, párrafo primero, letra c)
Artículo 6, apartado 2, párrafo segundo	Artículo 6, apartado 2, párrafo segundo
Artículo 7	Artículo 7
Artículo 8, apartado 1	—
Artículo 8, apartado 2	Artículo 8
—	Artículo 9
Artículo 9	Artículo 10
Artículo 10	Artículo 11
Anexo	Anexo I
—	Anexo II
—	Anexo III